



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de julio de 2010

HERRIZAINGO SAILA

Erabakia, EUDEL – Euskal Udalerrien Elkartearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arteko lankidetzeta-hitzarmena baimentzeko dena. Helburua: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka eta berdintasunaren alde egiteko Euskal Udalerrien Sarea – Berdinsarea garatzea.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Erabakia, hamazortzi ikertzaileen behinbetiko kontratazioa egiteagatik Ikerbasque Fundazioari dirulaguntza zuzen bat ematen duena, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzeta ezartzeko, Jarduera Ikertzailean Sartzeko eta hori Areagotzeko Sustapen Programaren protokolo orokorra garatzeko (I3. programarena). 2008ko Hitzarmena, 2010eko urtekoa.

Dekretua; Lanbide Heziketako Ikasgela, Tailer eta Ikastetxeetako praktika pedagogiko egokiei eta irakasleen kudeaketari emandako sariei buruzkoa.

Agindua, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titularrak diren kooperatibentzat dirulaguntzak deitzen dituen.

Agindua, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleen gurasoen elkarten federazio eta konfederazioentzako dirulaguntzak deitzen dituen.

Agindua, Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteentzako dirulaguntzak deitzen dituen.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Erabakia, azalera-eskubidean eraikita dauden eta behin-behineko kalifikazioa 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen jaso zuten araubide orokorreko eta bereziko hainbat etxebizitza hartzen duen lurzorua kostu bidez besterentzea baimentzen duena.

Erabakia, Autoridad del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza SA sozietatea Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza izeneko partzuergoari osorik lagatzeko proiektuari buruzkoa.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Ebazpena, merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko bekak emateko deialdi publikoa egiteko dena.

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Agindua, Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko beken 2010eko deialdia egiten duena.

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

Erabakia, Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioari zuzeneko diru-laguntza emateari buruzkoa. Helburua: berrikuntza eta ikerkuntzako proiektuak garatzea, gazteen bizitza afektibo eta sexualarekin lotutako portaera osasungarrien sustapenaren eremuan.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Erabakia, Landa Garapeneko Zabaia, Enkarterrialde eta Urkome Elkarteei eta Mendinet – Toki Ekintzarako Taldeari zuzeneko diru-laguntza emateari buruzkoa. Helburua: informazio eta komunikazioaren teknologia berriekin lotutako proiektuak garatzea.

Erabakia, 5.000.000 euro baino gehiago gastatzeko baimena emateari buruzkoa. Helburua: nekazaritzako produktuak eta elikagaiak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak 2010eko ekitaldirako deitu zituen Aginduan araututako laguntza ekonomikoak finantzatzea, urriaren 7ko 172/2008 Dekretuaren babesean (Lehiatu programa).

KULTURA SAILA

Dekretua, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko Dekretua aldatzekoa.

Erabakia, Arabako Foru Aldundiarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin landiketza-hitzarmena izenpetzeko baimena emateko dena. Helburua: Fernando Buesa Arenako esparrua zabaltzeko finantziario bateratua izatea eta horren inguruko beste jarduera publiko batzuk burutzea.

Dekretua, goi-mailako kirolari buruzkoa

Agindua, Dantza sustatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko dena.

Ebazpena, HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak 2009-2010 ikasturtean gainditu dituzten ikasleei emango zaizkien dirulaguntzen baldintzak arautu eta deialdia egiten duena.

Herrizaingo Saila

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZAK LANKIDETZA ESKAINIKO DIO BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKAL UDALEN SAREARI (BERDINSAREA)

Herrizaingo Sailak, Emakundek eta Eudelek hitzarmena sinatzea onartu du Gobernu Kontseiluak

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak lankidetza eskainiko dio Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskal Udalen Sareari (Berdinsareari), hain zuzen ere gaur bertan hitzarmena sinatu baitute Euskal Udalen Elkartearekin (Eudel) eta Emakumearen Euskal Erakundearekin (Emakunde).

Hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, Herrizaingo Sailak, Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bidez, finantziazioa eskainiko dio Udalen Sarearen kudeaketaz arduratuko den aholkularitza teknikoari, eskainiko duen laguntza teknikoa dela eta.

Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskal Udalen Sareak (Berdinsareak) duen misioa ondorengoa da: toki-administrazioetan kudeatuta berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka egiten diren programa eta zerbitzuak bultzatu, sendotu, koordinatu eta ebaluatzea. Helburua gaiaren inguruan tokian-tokian hartutako erantzunak hobetzea da, Sarea udalen eta udalez gaindiko beste erakunde batzuen arteko batasun-gunea izan dadila lortzea.

Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskal Udalen Sarea (Berdinsarea) sortzea Tratu Txarrak Jasandako Emakumeentzako Segurtasun Planean aurreikusita zegoen (2002ko azaroaren 22an onartu zen), eta Eudelek eta Emakundek parte hartzea aurreikusten zen. Bi erakunde horiek lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten 2005eko otsailaren 24an, eta luzatu egin da, inon jasota ez badago ere, 2009. urtera arte.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1,25 MILIOI EURO IKERTZAILEAK KONTRATATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko egunean onartu du Ikerbasque fundazioari dirulaguntza zuzen bat, 1.250.526 euroko zenbatekoan, emateko erabakia, 2 mailako, unibertsitate-katedradunekoa, hemezortzi ikertzaile mugarik gabe kontratatzeko, I3 programari buruzko protokolo orokorra garatzeko Zientzia eta Berriztapena Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzahitzarmenaren barruan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

PRAKTIKA ONAK SARITZEA LANBIDE HEZIKETAKO IKASGELA, TAILER ETA IKASTETXEAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Lanbide Heziketako Ikasgela, Tailer eta Ikastetxeetako praktika pedagógiko egokiei eta irakasleen kudeaketari emandako sariei buruzko Dekretua.

Dekretu honen xedea Lanbide Heziketako ikasgela, tailer eta ikastetxeetako praktika pedagógiko egokien eta irakasleen kudeaketaren sariak emateko baldintzak arautzea da.

Praktika egokien identifikazioa eta sailkapena honako kontzeptuen zioz emango dira: Ikasketa autonomoan eta lankidetzaz-ikasketan oinarritutako portaera eta jarrerekin erlazionatuko gaitasunak bereganatzeko ikasleen ikasketa-jarduerak. Informazioaren eta komunikazioaren teknología berriak (IKTak) erabiltzea eta ikasketa-metodo eta -prozesuak eguneratzean horiek aplikatzea. Informazioaren eta komunikazioaren teknología berriak (IKTak) erabiltzea eta horiek aplikatzea Lanbide Heziketako ikastetxeen kudeaketa hobetzeko. Eta Lanbide Heziketako ikastetxeen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko jarduerak eta metodoak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko egunean onartu du unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titularrak diren kooperatibentzat dirulaguntzak deitzen dituen agindu bat.

Irakaskuntza-kooperatibentzat dirulaguntzak deitzea, 53.000 euroko zenbateko globalean, du agindu honek helburu, ikastetxe desberdinetako ikasleentzako jarduerak egiteagatik dituzten gastuetan laguntzeko eta ikasleen gurasoen prestakuntzarako.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

GURASO ELKARTEEN FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleen gurasoen elkarten federazio eta konfederazioentzako dirulaguntzak deitzen dituen agindu bat.

Ikasleen guraso elkarten federazio eta konfederazioei emango zaizkie dirulaguntza horiek, 450.000 euroko zenbateko globalean, funtzionatzeko behar diren azpiegituren gastuetan, guraso elkarteei laguntza eta aholkularitza emateko jardueren gastuetan eta gurasoen prestakuntzarako eta elkarte horiek osatzen dituzten ikastetxeetako ikasleentzako jardueretarako gastuetan laguntzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

650.000 EURO GURASO ELKARTEETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko egunean onartu du Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteentzako dirulaguntzak deitzen dituen agindu bat.

650.000 euroko zenbateko globalean dirulaguntzak deitzea du agindu honek helburu, ondorengo gastuak finantzatzen laguntzeko: HHIko ikasleen elkarteek eta guraso elkarteek funtzionatzeko jarduerak eta azpiegiturek eragindakoak; ikastetxe desberdinetako guraso eta ikasleei zuzendutako jarduerak eragindakoak.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

EUSKO JAURLARITZAK AZALERA-ESKUBIDEAN ERAIKITAKO ETA BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA DUTEN ETXEBIZITZAK HARTZEN DITUEN LURZORUA SALTZEKO BAIMENA EMAN DU

Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena eman du azalera-eskubidean eraikita dauden eta behin-behineko kalifikazioa 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen jaso zuten babes ofizialeko hainbat etxebizitzak okupatzen duten lurzorua saltzeko. Onartutako neurri horri esker, azalera-eskubidean eraikitako etxebizitzaren titularrek jabetza osoa eskuratu ahal izango dituzte, eta ez dituzte 75 urtera galduko, betiere etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra ere eskatzen badute.

Gaur egun araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko 20.221 etxebizitza daude, erosteko esleitutakoak eta azalera-eskubideak eskualdatutakoak, Eusko Jaurlaritzaren lurzorian eraikita, eta horietatik 3.980 etxebizitza Araban daude, 9.052 Bizkaian, eta 7.189 Gipuzkoan. Azalera-eskubidean eraikitako eta kalifikatutako etxebizitza guztietatik 11.859k aldi baterako kalifikazioa dute (2003a baino lehen kalifikatutakoak), eta 8.362k dagoeneko kalifikazio iraunkorra daukate (2003tik aurrera kalifikatutakoak).

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010erako Aurrekontu Orokorretan azalera-eskubide horien titularrei, lurzoriaren oihartzun-balioa ordainduta, lurzorua eskualdatzeko aukera jaso zen. Lortzen diren diru-sarrerak alokairuaren aldeko politikak bultzatzeko erabiliko dira. Prozesu hau irekitzeko aukera, orain hilabete eskas, Etxebizitza Sailak 70 erakunde sozial eta ekonomikorekin sinatu zuen Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren baitan adostutako ekintzetako bat dugu.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak titularrek etxebizitzak jabetza osoan eskuratzeko modua egin nahi du, eta horretarako, hainbat fasetan banatutako prozesu bat diseinatu du.

Lehenengoa fasean, araubide orokor eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzetan aldi baterako kalifikazioaren aldetik antzintasun handiena dutenei emango zaie lurzorua eskuratzeko aukera, hain zuzen ere behin-behineko kalifikazioa 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu zutenei. Guztira, 11.859 etxebizitza.

Baina horrelako sustapenetan badira merkataritzako lokalak eta etxebizitzetara atxikita ez dauden eranskinak dituztenak ere. Horiei ere, eraikinak hartzen duen lurzoriaren balio osoaren partaidetza-kuota bat dagokie. Beraz, komeni da horiek ere lurzoriaren jabetzaren aukerako erosleentzako zerrandan sartzea.

Agindu batek lurzorua saltzeko jarraitu beharreko izapideak, lurzorua nola balioetsi behar den eta salmenta gauzatzeko zer epe bete behar diren ezarriko du.

Lurzoruaren balioari dagokionean, eraikinaren balio osoa kalkulatu da lehenbizi; horri % 10 aplikatu zaio, lurzoruak balio osoan duen oihartzun-balio gisa. Hori jabetza horizontalean bakoitzari dagokion partaidetza-kuotarekin biderkatu da, eta ateratzen denari dagokion BEZa gehitu zaio.

Lurzorua erosi nahi duten guztiei erraztasunak eskeinitako zaizkie. Epe luzerako eta interes baxuko finantzaketa lortu ahal izango dute, eta eragiketaren eta izapide-gastuen % 100 eskuratu ahal izango dute modu horretan, eragiketa horiek guztiak babes ofizialeko etxebizitzaren finantzaketa arautzen duen Eusko Jaurlaritza, banketxe eta kutxen arteko finantzaketa-hitzarmenaren eranskin batean jasoko baitira.

Kontuan izan behar da irailean prezioen agindu berria onartzen denean, etxebizitzaren azalera-eskubidea balioa galtzen hasiko dela denbora igaro ahala, eta 75 urteak betetzeko gutxiago falta ahala.

Gaur onartutako neurri horri esker, azalera-eskubidean eraikitako etxebizitzaren titularrek jabetza osoa eskuratu ahal izango du, betiere etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra ere eskatzen badute, hau da, onartu beharko dute etxebizitza horiek betirako babestuak izatea.

Horrela bada, etxebizitza horiek babestutako etxebizitzaren parkean jarraituko dute, eta hartara, epe luzera interes publikoentzat arazo sakona izan zitekeena ekidingo da, azalera-eskubidea iraungi, eta etxebizitza horien titularrak etxebizitza utzi beharrean gertatutakoan.

Etxebizitzak babestutako etxebizitzaren parkean jarraitzeak ondorio garrantzitsuak izango ditu prezioen erregulazioan, eta aukera ematen du bigarren eta ondoren eskualdaketetan eskaintza handitzekoa, eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak ematen duen berme publikoarekin eta etxebizitza horien funtzio soziala kontrolatuz eta ikuskatuz.

Laster, faseak bete ahala, lurzorua erosteko eskaintza hau kalifikazio iraunkorra duten eta azalera-eskubidean eraikita dauden etxebizitzetara ere egingo zaie, baldintza objektibo berberekin.

Prozedura

Lurzorua erosi nahi duten pertsonak eskabide-orri bat eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute beren lurralde historikoko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan. Lurzorua erosteko finantzaketa kualifikatua lortu nahi dutenek, hala adierazi beharko dute eskabide-orrian.

Eskabideak aurkezteko epea 2010eko irailaren 15ean hasi eta azaroaren 15ean amaituko da.

Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak eragiketaren azken prezioa (BEZa barne dela) jakinaraziko dio eskatzaileari, bai eta ordaintzeko modua eta epea, gehienez ere hilabetekoa izango baita.

Interesdunak finantza-neurriak ere eskatu baditu, azken prezioarekin batera neurri horiek onartu zaizkion ala ez adieraziko duen ebazpena jakinaraziko zaio.

Azken prezioa ordaindutakoan, lurralde-ordezkariek ebazpena emango du, etxebizitza, izaera orokorreko babes ofizialeko etxebizitza gisa kalifikatzeko, erosteko eskaeraren aldeko ebazpena onartuko du, eta dei egingo die interesdunei eskritura publikoa egiteko, Agindua indarrean jarri eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA ERATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTU DA

Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena eman du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta Donostiako, Irungo eta Errenteriako udalekin lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko, Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza izena hartuko duen partzuergoa eratzeko.

Partzuergo hau eratuta, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza SAK egungo egitura juridikoarekin bere egitekoak aurrera eramateko dauzkan zailtasunak gainditu nahi dira.

Horregatik, pentsatu da egokiena partzuergo bat eratzea dela, eta partzuergoak burutzea egun administrazio horiek dituzten hainbat eskumen eta zerbitzu.

Partzuergo berriak egun Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza sozietate anonimoan dauden baliabide pertsonal eta materialak izango ditu.

Erakunde berriak, garraioaren lurralde-agintaritza bati berez dagozkion xede eta helburuez gainera, honako hau izango du xede:

- a) Gipuzkoako garraio-zerbitzu eta azpiegituren gaineko koordinazioa eta lankidetzeta bideratzea, partzuergoa osatzen duten erakundeen artean, eta Gipuzkoan garraio-zerbitzu eta azpiegituren titular edo emakidadun diren erakunde eta operadoreen artean.
- b) Garraio-zerbitzu eta azpiegituren arloan, partzuergoa osatzen duten erakundeen eskumeneko jardure mota oro kudeatzea. Horretarako, kasuan kasuan komeni den tresna juridikoaren bidez, behar diren eskumen esleipenak, transferentziak eta eskuordeketak egitea edo kudeaketa-gomendioak egitea.

Erakunde berria Gipuzkoan garraio kolektiboen arloan eskumenak dituzten erakundeek soilik osatuko dute; aukera izango da, erakunde berriak ere sartzeko, betiere xede berberak badituzte eta Batzar Nagusiak onartzen baditu.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak egiteko hauek izango ditu:

a) Garraio-zerbitzu eta azpiegituren plangintza egitea:

- Gipuzkoako garraio-zerbitzuen plangintza egiten laguntzea, bai eta horien ustiapen koordinatua egiteko programak ezartzen.

- Gipuzkoako garraioen merkatu orokorraren bilakaera aztertzeke behatoki bat sortuko du, garraio pribatuaren bilakaerari jarraipen berezia egingo diona.
- Jendeak garraio bide pribatuetara ez jotzeko jarduketak proposatzea.
- Gipuzkoako garraio-azpiegituren plangintza egiten laguntzea.
- Eskumenak beste arlo batzuetan dituzten organismo eta erakundeekin koodinatzeko tresnak proposatzea, horien jardunak garraio-zerbitzu eta azpiegiturretan eragiten badu.

b) Tarifen antolamendua.

- Behar den bultzada ematea, tarifen sistema integratu bat, txartel bakarra barne zehazteko, ezartzeko, garatzeko eta koordinatzeko.

c) Komunikazioa, erabiltzailearentzako informazioa eta sistemaren ebaluazioa:

- Garraio kolektiboko sistemaren irudi korporatibo bat ezarriko du, titularrek eta operadoreek dituztenekin bateragarria.
- Komunikazio kanpainak egingo ditu Gipuzkoan jendeari garraio publikoa erabiltzera deitzeko.
- Erabiltzaileari informazio-sistema integratu baten bidez emango zaio informazioa.
- Garraioaren ebaluazioa, besteak beste, herritarren artean mugikortasunaren gaineko inkestak eginez eta jendearen parte-hartzea bultzatuz.

d) Aholkularitza eta txostenak:

- Gipuzkoako toki-erakundeei aholkularitza eskainiko die, hiri-antolamenduko plan orokorrak eta planeamenduko bestelako tresnak egiteko, garraio-plangintzarekiko koherentzia aztertzeke eta bata besteari ondo egokitzeko.
- Partzuergoko eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei programa-kontratuak egin edo ituntzeari buruzko edo garraio-operadoreekiko bestelako hitzarmenei buruzko aholkularitza eskainiko die.
- Partzuergoko eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei garraio-zerbitzuen ustiapenerako emakidak emateko, aldatzeko eta iraungitzeko espedientei buruzko aholkularitza eskainiko die.

- Urtero txosten bat egingo du Gipuzkoako garraioaren egoerari buruz.

Erakundeek Batzar Nagusian izango duten partaidetza eta diru-ekarpenak honela banatuko dira: Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak %

45na, Donostiako Udalak % 7, Irungo Udalak, % 2, eta Errenteriako Udalak % 1.

Lehendakaritzaren eta lehendakariordetzaren karguak txandakakoak izango dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Jaurlaritzaren ordezkariak beteko dituzte.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza, eta Turismo Saila

JAURLARITZAK % 20 GEHITU DU MERKATARITZAN TEKNIKARI LAGUNTZAILEAK PRESTATZEKO BEKEN KOPURUA

Jaurlaritzaren Kontseiluak 450.000 euro onartu ditu beken programarako

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du merkataritzan teknikari aholkulariak prestatzeko beka emateko deialdia. Aurten % 20 gehituko da beken kopurua, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak abiarazitako merkataritza dinamizatzeko bulegoen berri izandako zabalkuntzarekin lotuta dago gehikuntza hori.

Aurten, 30 lagun baliatu ahalko dira 450.000 eurekin hornituriko beken programa horretaz.

Euskadiko merkataritza-banaketaren sektorean profesionalizazioaren hobekuntza bultzatzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzeko Jaurlaritzaren helburuaren barruan biltzen da programa hori. Horretarako, enpresa-kudeaketan behar bezala kualifikaturiko eta sektorearen egiturari eta bilakaerari buruzko jakintzak dituzten profesionalak behar dira.

32 urtez azpiko goi-mailako unibertsitateko tituludunei zuzenduta dago deialdia. Abuztuaren 4tik 20ra bitarte aurkeztu ahalko dira eskaerak. Lortzen dutenek euskal udalerrietan banaturiko merkataritza dinamizatzeko bulegoetan garatu ahalko dute beren ikastaldia. Aurten gehitu egin dira: 21 izatetik 30 izatera igaro dira, koordinazioari eskainitako bi barne.

Programaren barruan, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) ikastaroak emango dizkie bekadunei. Ikuspegi praktikoa duten irakasgaiak biltzen dira gaitzerrendan: 'Merkataritza-banaketaren sektorea: kontestualizazioa', 'Merkataritza hirigunean', 'Euskadiko merkataritza-banaketaren sektorerako laguntza teknikoak', 'Merkataritza-enpresaren kudeaketa: zuzendaritza estrategikoa, marketina, pertsonak merkataritzan eta finantza-kudeaketa', 'Esparru juridikoa: merkataritza-antolamendua eta merkataritza-jardueraren garapena eraginpean hartzen duen legeria', 'Merkataritzako joera berriak: teknologia, bikaintasuna eta berrikuntza, ingurumen-erantzukizuna'. Irailetik azarora bitarte garatuko dira ikastaro horiek.

Enplegu eta Gizarte gaietako Saila

GARAPEN LANKIDETZAREN ARLOAN PROFESIONALAK PRESTATZEKO BEKAK

Jaurlaritzaren Kontseiluak garapen-lankidetzaren arloan profesionalak prestatu eta espezializatzeko 6 beka emateko deialdia egitea onartu du. Beken guztizko hornidura 118.000 euro da.

Beka horiek arautzen dituen dekretuaren arabera, bekadunek kasu egin beharreko betebeharren artean beka-amaierako azterlan bat egitea eta lankidetzaproiektuetan parte hartzea daude, baita Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren programekin zerikusia duten hitzaldi, ikastaro, jardunaldi eta mintegietara bertaratzea ere.

Plazen esleipena honako baremo honi jarraiki ezarriko da:

- a) Ibilbide akademikoa, kontuan izanda laguntza lehentasunez prestakuntzafasean dauden pertsonen bideratuko zaiela (% 30)
- b) Atzerriko hizkuntzei buruzko ahozko eta idatzizko jakintza-maila. (% 25)
- c) Informatikari buruzko jakintzak (% 10)
- d) Nazioarteko aktualitateari buruzko jakintza nahikoa Garapen Lankidetzaren inguruko gaietan (% 25)
- e) Euskara jakitea (% 10)

Deialdi-agindua EHAAAn argitaratu eta biharamunetik egutegiko 15 eguneko epean aurkeztu beharko dira eskaerak.

Osasun eta Kontsumo Saila

OSASUN ETA KONTSUMO SAILAREN ETA BERRIKUNTZA ETA IKERKUNTZA SANITARIOKO EUSKAL FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZAKO KONTRATUA, BERRIKUNTZA ETA IKERKUNTZAKO PROIEKTUAK GARATZEKO POPULAZIO GAZTEAREN BIZITZA AFEKTIBO ETA SEXUALAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARRERA OSASUNGARRIEN SUSTAPENAREN EREMUAN

Gobernu Kontseiluak Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Berrikuntza eta Ikerkuntzako Euskal Fundazioaren arteko Lankidetzako Hitzarmena onartu du populazio gaztearen harreman afektibo eta sexualei ekiteko.

Osasun eta Kontsumo Saila Osasuna-Hezkuntza-Drogomendekotasuna Batzorde Mistoko kide da, 1996an sortutakoa eta ondoko helburuak dituena:

- Modu eta bizimodu osasungarriak hartzea eta barneratzea: elikadura, nutrizioa, jarduera fisikoa, aho-hortzetako osasuna eta istripuzko lesioak.
- Heziketa afektibo-sexuala eta pertsona arteko harremanak, nerabezarorako gai espezifikoekin: hiesa, sexu bidez transmititutako gaixotasunak eta nahi ez diren haurdunaldiak.
- Alkohol, tabako eta bestelako substantzien erabilera eta abusua.

Batzorde horren arabera, hezkuntza afektibo-sexualari era holistiko eta eraginkorrean ekin behar zaio, Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat ikaskuntza esanguratsua izanda. Horretarako, ezinbestekoa da ikaskuntzarako metodo eta tresna berriak sortzea, eta horretarako beharrezkoa da berrikuntza, jarduera irizpidetzat hain dinamiko eta plurala den populazio honekin.

Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitarioko Fundazioaren helburua ondokoa da: "Euskadiko Osasun Sisteman berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea, populazioaren osasuna babesteko duen esku hartzeko gaitasunen etengabeko garapen eta hobekuntza tresnatzat".

Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

EUSKO JAURLARITZAK 480.000 EURO BIDERATU DITU, LANDA-EREMUAN TEKNOLOGIA BERRIAK SARTZEA BULTZATZEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak, gaurko bileran, landa-garapeneko hainbat elkarteri eta Mendinet Tokiko Ekintza-taldeari guztira 480.000 euroko diru-laguntza bat ematea onartu du. Laguntza horrekin, landa-eremuan internetek eskaintzen dituen zerbitzuak eta aukerak sartzea bultzatuko da.

Horrela, Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio Pilar Unzalu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamen bati: landa-ingurunean baliabide digitalak hedatzea eta erabiltzea ahalbidetuko duten egitasmoak abian jartzeko proposamena da.

Diru-laguntza horiek emanda, orain arte Informazio eta Komunikazio Teknologien IKT Dinamizatzailleek garatu duten lana indartzen da, eskualdeak barruan garatzeko eta kanpoan sustatzeko internetek eskaintzen dituen aukeren gainean sentsibilizatu eta trebatzeko.

Zuzeneko diru-laguntza horien onuradunak hauek dira: Mendinet (300.000 euro), Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko elkarteek eta Itsasmendikoik osatzen duten irabazi asmorik gabeko taldea; Zabaia Landa Garapeneko Elkarte (60.000 euro); Enkarterrialde Landa Garapeneko Elkarte (60.000 euro); eta Urkome Landa Garapeneko Elkarte (60.000 euro).

Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

**2010EKO LEHIATU PROGRAMAN, 12 MILIOI BIDERATU DIRA
NEKAZARITZAKO ETA ELIKAGAIGINTZAKO EUSKAL HERRIKO
PRODUKTUAK ERALDATU, MERKATURATU ETA SUSTATZEKO
LAGUNTZETARA**

2010eko Lehiatu Programan nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak eraldatu, merkaturatu eta sustatzeko laguntzen deialdira 12.081.250 euro bideratzea onartu du Jaurlaritzaren Kontseiluak gaurko bileran.

Horrela, Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio laguntza horien deialdia egiteko Pilar Unzalu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak eman duen Aginduari. 9.100.000 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira, eta 2.981.250 euro LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetan bidez.

Diru-laguntza programa horren bidez, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak eta basogintzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntza emango da, eta elikagaigintza, arrantza eta basogintzako produktuak kanpoan sustatzeko ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoak finantzatuko dituen 9.100.000 euroetatik 4.600.000 euro aurtengo ordainketa-kredituetakoak dira, 2.800.000 euro konpromiso-kredituak dira, eta 1.700.000 euro 2012ko ekitaldirako dira.

Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

47.603 EUROKO DIRU-LAGUNTZA BAT ONARTU DA, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO LANAREN BALIOAREN GAINEAN IKASLEEN ARTEAN SENTSIBILIZAZIOA LANTZEKO

Deba Garaia Landa Garapeneko Elkarteari eta Debemen elkarteari 47.603 euroko diru-laguntza bat ematea onartu du Jaurlaritzaren Kontseiluak gaurko bileran. Diru-laguntza horrekin, plan bat gauzatuko da, ingurumena eta paisaia zaintzeko nekazaritzak eta abeltzaintzak duten garrantzia ikasleei erakusteko.

Horrela, Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio laguntza horiek emateko Pilar Unzalu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak egindako proposamenari. Laguntza horien bidez, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleak sentsibilizatuko dira: ingurumena zaindu, paisaia mantendu eta inguruan aisialdirako guneak edukitzeko nekazaritzak, abeltzaintzak eta eraldaketa-enpresa txikiek duten garrantzia erakutsiko zaie.

Bisita didaktikoak antolatuko dira ikasleentzat ustategietara eta eraldaketa-planta txikietara. Horrekin, aldi berean, nekazarien irabaziak osatuko dira, haiek izango baitira irakasle heziketa-jarduera horietan.

47.603 euroak erdibana banatuko dira, Deba Garaia Landa Garapeneko Elkartearen eta Debemen elkartearen artean, Debarroa Sentsibilizazio Plana gauzatzeko.

Kultura Saila

KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEEI BURUZKO DEKRETUAREN ALDAKETA ONARTU DA

Osasun eta Kontsumoko sailburuak eta Kulturako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak, gaurko bileran, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko Dekretuaren aldaketa onartu du gaur, dekretu horretan jasotako hizkuntza-betebeharrak betetzeko epeak urtebetez atzeratzeko.

Egia da pausuak ematen jarraitu behar dugula euskararen erabileran gizartearen arlo guztietan benetako normalizazioa lortzeko, eta beharrezkoa da botere publikoek hori bultzatzea; dena dela, gaur egun ez dago baldintza egokirik zehapen-araubide bat aplikatu ahal izateko 123/2008 Dekretuaren aplikazio-eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren gaur eguneko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta. Hori dela eta, aldaketa honen bidez, dekretuan ezarritako betebeharrak betetzeko epea urtebete luzatuko da. Horrela, enpresek beste hamabi hilabeteko epea izango dute dekretuan jasotako eskakizunetara egokitzeko.

Kultura Saila

FERNANDO BUESA ARENA HANDITZEKO HITZARMENA ONARTU DA

Jaurlaritzaren Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizeko Udalaren arteko lankidetzaz zehazten duen hitzarmena onartu du. Hitzarmenaren helburua da, Fernando Buesa Arena handitzeko eta esparrua ekipatzeko proiektua dela eta, lan hori elkarrekin finantzatzea eta bakoitzak bere eskumeneren barruan zenbait ekintza egitea, Arabako Foru Aldundiak egin eta onartutako proiektuarekin bat etorritik. Eusko Jaurlaritzak proiektuaren kostuaren %50 jarriko du (handitzeko lanak, esparruaren ekipamendua eta finantziatorako beharrezkoak diren kreditu-eragiketen gastuak); 16.700.000 euro gehienez ere.

Fernando Buesa Arena erabilera askotarako esparrua handitzea eta, horrela, 15.000 ikuslerentzako tokia egokitzea, oso garrantzitsua da, eta betekizun eta ezaugarri guztiak betetzen ditu bai kirola eta kultura bultzatzeko helburua lortzeko baita Araba eta Euskadi osoaren sustapen ekonomikorako eta gizarte ongizatea hobetzeko.

Gainera, azpiegitura honen kudeaketa eta erabilera Vitoria-Gasteiz eta Arabako Lurralde Historikoa biltzen dituen ardatzetariko bat da, eta, beraz, proiektu estrategikoa da Euskadirako.

Kultura Saila

GOI MAILAKO KIROLARI BURUZKO DEKRETUA ONARTU DU GOBERNUAK

Gobernu Kontseiluak, Kultura sailburuak proposatuta, goi mailako kirolari buruzko dekretua onartu du, hain zuzen ere Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legearen atal batzuk garatu ahal izateko. Dekretuaren bidez, Euskadin goi mailako kirolariak zein diren identifikatzen da, eta beraz, zein eskubide eta nolako laguntzak jaso ahal izango dituzten zehazten; era berean, laguntza eman eta babesten dituen gizartearekiko nolako betebeharrak eta konpromisoak dituzten ere adierazten da. Esandakoaz gainera, dekretuak goi mailako kirol-zentroak izatea bultzatu nahi du, horietan kirolariak kopuruan eta kalitatean egokia izango den entrenamendua egin dezaten; gainera, kirola goi mailan praktikatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak sortzearen alde ere egin nahi du, eta baita goi mailako kirol-lehiaketa eta ikuskizunen alde ere; lehiaketa horietan Euskadiko kirolariak parte hartzea bultzatuko du.

Goi mailako kirola babesteko legeak hartutako bidea eta dekretuaren bidez arautu nahi dena begi bistakoa den errealitatean oinarritzen da, eta bi aldetatik heldu behar zaio gaiari, ezberdinak baitira nabarmen. Batetik, goi mailako kirola interes publikokotzat jotzen da, autonomia-erkidegoaren kirol-garapenean zeresan handia duen eragileetako bat dela uste baita. Izan ere, oinarritzko kirola sustatzeko pizgarrietako bat da, eta lehiaketa ofizialetan ordezkari izateko bidea ematen du. Baina, beste aldetik, goi mailako kirolak horietan diharduten kirolariak asko eskatzen die. Maila horretako kirolarien hautaketa oso zorrotza da, eta apustu arriskutsua egin beharko dute, beren bizitzako urte erabakigarri batzuk eskaini beharko baitizkiote ahalegin handi horri, nahiz eta seguru izan ez emaitzek etorkizuna ziurtatuko dietenik. Era berean, kirolariok baliabide garesti eta konplexuak behar dituzte helburu bikainetara iritsi ahal izateko.

Orain arte adierazitako guztia aintzat hartuta, goi-mailako kirola arautzeko orduan izan behar den ikuspegia, eta, horrenbestez, dekretu honek izan beharreko helburu nagusia hau da: goi-mailako kirola babestea eta arlo horretan laguntza ematea. Horretarako, betiere, goi-mailako kirolaren protagonista direnak (alegia, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak) hartu behar dira aintzat, beren oinarritzko beharrezkoak ondo erantzunda. Horrekin batera, goi-mailako kirol horiek egiteko modua egon dadin, goi-mailako kirol-zentroak eta bestelako kirol-egiturak sustatu behar dira, eta, horrez gainera, goi-mailako kirol-lehiaketak eta ikuskizunak ere antolatu behar dira.

Ildo beretik, Faturan dagoen Hobekuntza Teknikoko Zentroak izan beharreko zereginak definitzen dira dekretu honetan; Eusko Jaurlaritzako administrazio-zerbitzu honek bere gain hartzen ditu euskal kirol federatu guztiaren aholkularitza, ebaluazioa eta kontrol osoa, eta, batez ere, goi-mailako kirolarena. Horrenbestez, arau honetan goi-mailako kirol-zentroak zein diren eta zein baldintza bete behar dituzten jasota egonik, Faturako Zentroa izango da aurrerantzean goi-mailako zentro guztiak elkarrekin uztartu eta koordinatzeko ardatza.

Kultura Saila

GOBERNUAK 365.000 EURO JARRIKO DITU DANTZARI LAGUNTZEKO

Kulturako sailburuaren proposamena aintzat hartuta, ontzat eman du Gobernu Kontseiluak 2010ean hasi edo egingo diren dantza-jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituen agindua. 365.000 euro emango dira gehienez laguntzetan, honako modalitate hauetan banatuta: 30.000 euro, 'Koreografiak sortzeko'; 100.000 euro, 'Konpainiak errotzeko'; 120.000 euro, 'Dantza-ikuskizunak ekoizteko'; 30.000 euro, 'Biratarako'; eta 85.000 euro, 'Etengabeko prestakuntzarako eta profesionaleri bultzada emateko'.

Kultura Sailari egokia iruditzen zaio dantzari laguntzeko bidea abiatzea, zenbait proiekturi diru-laguntzak ematek hasita, adibidez, koreografia sortzekoei, dantza-konpainiak errotzekoei, obrak ekoiztekoei, Euskaditik kanpora biran irtetekoei, eta etengabeko prestakuntza eta dantzako profesionaleri laguntza ematekoei. Izan ere, helburua da Euskadin aritzen diren koreografo eta dantza-konpainien sormen-lanari indarra ematea eta, ahal den heinean, sektorea profesionalizatzeko ahalegina egitea; horrez gain, dantzari hedapena emateko ekintzak ere lagundu nahi dira, dantzak gero eta leku eta aukera handiagoa izan dezan Euskadi bertako nahiz kanpoko agertoki-zirkuituetan.

Deialdi honen barruan, esanda bezala, honako arlo hauetan mamituko dira laguntzak:

1.- Koreografia-sorkuntza

Koreografia orijinalak sortzeko dira laguntza hauek. Eszenako formatua betikoa, alternatiboa edo kalekoa izan daiteke; hamabost minutu inguruko iraupenekoa, eta 2010eko urtarrilaren 1aren eta 2011ko abenduaren 31n egitekoa. Hamar laguntza emango ditugu gehienez arlo honetan, bakoitza 3.000 eurokoa.

2.- Dantza-konpainiak errotzea

Atal honen xedea da Euskadin lan egiten duten dantza-konpainiei errotzen laguntzea. Diru-laguntza jaso ahal izateko, bi eratakoak izan behar dute proiektuek: obra bat egin eta estreinatzea, 2010eko urtarrilaren 1aren eta 2011ko abenduaren 31 bitartean, edo 2010erako bira-plangintza izatea (Euskaditik kanpo gutxienez 8 ikuskizun aurreikusi behar dira). Gainera, ezinbestekoa izango da, paraleloan, Euskadin jarduteko programa izatea 2010erako, gutxienez, honako alor hauetakoren batean: etengabeko prestakuntza eta dantzako profesionalentzako bultzada; edo dantzarekiko sentiberatasuna. Modalitate honetako laguntza jasoko duen bakoitzak, 60.000 euro jasoko du gehienez ere.

3.- Dantza-ikuskizunak ekoiztea

Modalitate honek 2010eko urtarrilaren 1aren eta 2011ko abenduaren 31ren artean Euskadin sortu eta estreinatuko diren dantza-obrak lagundu nahi ditu.

Muntaia artistiko bat agertokira eramateko, aurretik beharrezko diren emankizun materialen multzoa, hara zer den ekoizpena. Modalitate honetako laguntza jasoko duen bakoitzak, 25.000 euro jasoko du gehienez ere.

4.- Bira artistikoak

Diru-laguntza jaso ahal izateko, dantza-ikuskizunak Euskaditik kanpo eman behar dira, 2010eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean, eta, gutxienez, bost aldiz. Ez dute diru-laguntza jasotzeko aukerarik erakusketa eta jaialdi amateurretan emateko diren proiektuek, ez eta biran 15 lagunetik gora daramatzatenek ere. Modalitate honetako laguntza jasoko duen bakoitzak, 10.000 euro jasoko du gehienez ere.

5.- Etengabeko prestakuntza eta dantzako profesionalei bultzada.

Modalitate honen xedea da 2010ean egitekoak diren etengabeko prestakuntzako jarduerak eta dantzako profesionalei bultzada emateko jarduerak laguntzea. Kontuan hartuko dira profesionalentzako prestakuntza etengabeko ikastaro edo tailerrak, bai eta sorkuntza eta ekoizpen profesionalari laguntzeko jarduerak ere, esate baterako, egoitza artistikoak, laguntza administratiboa edo teknikoa, eta hedapena emateko laguntza. Laguntza honetatik kanpo daude, zehatz-mehatz, goi hezkuntzako ataletako edozein arlotako programa arautuak dauzkaten jarduerak, zentro publikoetakoak zein pribatuetakoak; bai eta dantza-eskolek ikasturtean zehar antolatzen dituzten ohiko prestakuntza-programak. Modalitate honetako laguntza jasoko duen bakoitzak, 20.000 euro jasoko du gehienez ere.

Kultura Saila

JAURLARITZAK 1.850.000 EURO BIDEARTUKO DITU EUSKARA IKASTEN DUTENEN LAGUNTZETARA

Gaurko bilkuran, Gobernu Kontseiluak 2009-2010 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten ikasleentzako laguntzak jasotzeko baldintzak eta deialdia egiten duen HABEren zuzendariaren Ebazpena onartu du. Aurten 1.850.000 euro erabiliko dira, aurreko urtealdiko kopuru bera alegia, zeina duela bi urtekoa baino 550.000 euro handiagoa izan baitzen.

Gaur onartu den ebazpenak arautzen dituen laguntzen jasotzaileak helduei euskara irakasten dieten euskaltegi publikoetako ikasleak izango dira, pribatu homologatuetakoak eta euskararen autoikaskuntza ematen duten zentro homologatuetakoak. Laguntza jaso ahal izango dute 2009ko martxoaren 20tik 2010eko abuztuaren 31ra arte euskaltegi batean matrikulatuta egon diren ikasleek, baldin eta HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak egiaztatu badituzte 2009ko bigarren deialdian edo 2010eko lehenengo deialdian. Halaber, honako laguntza hauek jaso ahal izateko, ikasleek matrikula beren kontu ordaindua behar dute izan

	2010
Deialdiaren kopurua	1.850.000 euro
HABEren 1. maila edo baliokidea	870 euro
HABEren 2. maila edo baliokidea	630 euro
HABEren 3. maila edo baliokidea	460 euro
HABEren 4. maila edo baliokidea	400 euro

Dirulaguntza 2020eko irailaren 7tik urriaren 6ra bitartean eska daiteke, ohi den bezala, Internet bidez. Eusko Jaurlaritzaren asmoa da emandako laguntza guztiak 2010. urtea amaitu aurretik ordaintzea.